

# Itzaletik taula gainera

“Tragedia bat da!”, protesta egin du Shakespearek. “Bai, bai, nahi duzuna. Baina jendeari sufritu araztea kaka zaharra da”, bota dio aita Marciano Veronako apaizak. *La verdadera historia de Romeo y Julieta*n, William Shakespeare hausnartzera bultzatzen dute, idazleak berak sortutako pertsonaiek. Antzezlanak agertokira eramanez aurretik, obrari azken ukituak ematen ari dira “Ezezagunok” elkarteak. Beste edozein antzerki taldek egiten duen bezala. Haiena, baina, ez da ohiko antzerki taldea. Adimen urritasuna dute Ezezagunok-eko aktoreek.



Irungo Lapitze auzoko eskola zaharreko ikasgela txiki bat da Ezezagunok elkartearen entsegu aretoa. Saioa amaituta, zirkulu zabala osatu dute taldekideek, galderei erantzuteko prest. 2007aren amaieran kokatu dute taldearen sorrera. Luisma Moreno eta Miren Etxeberria *Gureak* enpresa taldean ibiliak ziren. Ana Pérezekin elkartu ziren, laguntza berezia behar duten pertsonen zuzendutako antzerki talde bat antolatzeko. Arte eszenikoetan esperientzia handia zuen ordurako Pérezek. 1986an Legaleón taldearen sorreran parte hartu zuen. Gaur egun, Ezezagunok elkarteak zuzendaritza artistikoa osatzen du hirukoteak. “2007aren amaieran esperimentatu egin genuen, ikusteko ea gai ginen obra txiki bat prestatzeko. Ondo ateratu zen, eta aurrera egitea erabaki genuen”, azaldu du Luisma Morenok. Taldearen izenaren zergatia ere argitu du: “Historian zehar izen asko jarri izan dizkiote kolektibo honi, ia denak mespretxuzkoak. Horrek esan nahi du jende askok ez dituela benetan pertsona hauek ezagutzen”.

2008aren hasieran eratu zuten antzerki elkarteak, bi helburu argirekin. Ana Pérezek azaldu ditu: “bata, obra txikiak antzezteko espazio publikoetan, edozein antzerki taldek bezala; bestea, eguneroko bizitzan baliagarri izan daitezkeen arloak lantzea, hala nola harremanak, memoria, emozioak, keinuak edo espazioaren kontrola”. Funtzio soziala ere betetzen du Ezezagunok-ek. Aisialdia modu aberasgarrian betetzeko aukera ematen die parte-hartzalderi. Asko ikasi dute zazpi urteko ibilbidean. Bilakaera handia izan dela azaldu du Luisma Morenok: “Hasieran ez genuen memoria lantzen, eta antzezlana oso estatikoak ziren”. Testuetan nabaritu du aldaketa Mari Ángeles Fernández aktoreak: “Hasieran, testuak errazak eta laburrak ziren. Orain zailagoak dira”. Obra



bat prestatzen hasten direnean, denbora asko ematen dute testua irakurtzen, eta pertsonaiek eta egoerak barneratzen. Etxeko lanak ere izaten dituzte, gainera. “Egunero entseatzeko dut etxean. Amak laguntzen dit”, onartu du Mikel Fizek.

**Romeo eta Julieta**n istorio moldatua *La verdadera historia de Romeo y Julieta* obra antzezteko ari dira aurten. William Shakespeare dramagile ingelesaren lanaren moldaketa da. Komedia moduan, Shakespearearen zergatia ere argitu dute. “Galdetzen diogu ea zergatik egiten dituen horren obra tristeak, eta ilunak”, azaldu du Luisma Moreno zuzendariak. Aktore guztiek aho batez erantzun dute publikoarengan zer eragin nahi duten galdetzerakoan: “Barrea”. Barrea eta txaloak gustatzen zaizkiola onartu du Idurre Burgañak. “Jendeak goza dezan egiten dugu, ez negar egiteko”, azpimarratu du Jon Caverok. Orain arte, makina bat algarra eragin ditu Ezezagunok-ek. Ezustekoren bat ere bai. “Jende askok aurreiritziak dauka oraindik, eta ez du uste gurea bezalako talde bat halako obrak antzezteko gai denik”, argitu du Luisma Morenok.

Urte erdian, bost aldiz antzeztu dute jada obra. Seigarrena ekainaren 6an izango da, Donostiako Antzoki Zaharrean (20:00). Badituzte beste hiruzpalau emanaldi lotuta. “Bi urteko lanaren ondoren, ahelik eta toki gehienetan antzeztu nahi dugu obra”, aitortu du Luisma Morenok. Horretarako, antzokietara eta departamentu sozialerara deitu eta proiektua azaldu behar iz-



ten dute. Behin hitzordua finkatuta, azpiegitura handia mugitzen dute: hogeitsonako taldea, materiala, jantziak... Hori dela eta, erakundeei deia luzatu nahi izan die Ana Pérezek: “Gurearen ezaugarriak dituen beste antzerki talderik ez dago Euzko Herria osoan. Babes handiagoa eska-



tzen dugu”. Gurasoen laguntza nekazina, behintzat, badute. Elkarrizketa bukatuta, irteeran denek dute aita edo ama zain. Entseguaren eta obraren inguruko galderak egin dituzte. “Noizbait gurasoekin antzeztuko dugu, primeran dakite eta”, esan du, txantxetan, Luisma Morenok. Baina ez zaio arrazoirik falta. Erabatekoa da Ezezagunok taldeko gurasoen inplikazioa.

**Folder**

Paper-dendarik merkeena  
**ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko aldea)  
www.kopiar.net  
kopiar@kopiar.net  
943 63 93 01

# Zirikatzailea, deserosoa, baina freskoa

Azken bi urteotan sortutako abesti probokatzaileak bildu ditu Pecoza United taldeak lehen diskoan

Homonimoa da Pecoza United taldearen lehen diskoa. Ez du esan nahi izen bereko lana denik. Horixe da Irungo hirukoteak jartri dion izenburua. "Txiste gisa baino, tranpa moduan pentsatu genuen. Eta bai, kazetariren bati ziria sartu diogu", adierazi du Xabi Burgaña batera jotzailleak. Umorea ezinbesteko osagaia da Pecoza United abestietan. Bestea, taldearen inguruko giroaren kritika zorrotza eta ausarta. Arlo musikalean, oinarri-oinarrizkoa da. Baxurik ere ez du. Hala ere, musika bigarren mailakoa da. Abestien hitzek dute garrantzia Pecoza United taldearentzat.



Pecoza United taldeko Xabi Burgaña, Beñat Muguruza eta Lander Bidaurre.

Ekimen faltak atzeratu omen zuen Pecoza United taldearen sorrera. Ideia "aspaldi" bururatu zitzaizela baieztatu du Beñat Muguruza gitarra jotzailleak. Taldearen historiaurrea duela zortzi urte inguru kokatu daiteke, Muguruza eta Lander Bidaurre abeslaria Gasteizen ikasle izan ziren garaian. Taldearen izenaren jatorria azaldu du Bidaurrek: "Futbol txapelketa baterako izena eman genuen, Ermuako lagun batzuekin. Haiek asmatu zuten izena, pekotza behiaren gorotza omen baita bizkaieraz. Guri grazia ikaragarria egin zigun". Noizbait, musika talde bat eratuz gero, izen hura jarriko ziotela erabaki zuten. Sei bat urte beranduago, Bilbon kontzertu bat ikusten ari zirela, Muguruzak albiste eman zion lagunari: "Taldea sortuko dugu!". Ez zuten gehiegitan errepikatu behar izan.

Argi zeukaten abestietan erabili beharreko tonua. Gaiak eta ideiak ere bazituzten, baina arratsalde batean abestiak idazteko geratzeko "lotsa" ematen ziela aipatu du Beñat Muguruzak. Horregatik, parranden

ondoren, ordu txikitzen idazten hasi ziren. Inauterietan idatzi zituzten lehen abestiak, Miguel taberna zahararen atzeko aldean. Aurrerantzean, parrandetan bakarrik geratzeko ahalegina egiten zuten, tabernariari papera eta boligrafoa eskatzeko. "Sunbillako barran ere sortu izan dira abestiak", gogoratu du Muguruzak. Entzatzeko, Lakaxita Gaztetxean elkartzen hasi ziren. Xabi Burgaña lagunari hots egin zioten orduan, taldea borobiltzeko. Bateriarekin, gitarrarekin eta ahotsarekin, aski zuten Pecoza United-ek. Baxua sartzeari zergatik uko egin zioten azaldu du Lander Bidaurrek: "Pecoza hutsaren hurrengoia da hitzak ulertzen ez baldin badira. Gaztetxe edo tabernetan jotzeko, pentsatu genuen baxuaren solnuak ulermenari kalte egingo ziola". Dena den, diskoan baxua grabatu dute, abestien soinua hobetzeko.

#### Umore probokatzailea

Zer dute ba Pecoza United-en hitzek, taldekideek hainbesteko garrantzia emateko? "Gure inguruari barre egiten diogu. Kontuan hartuta, noski, gu ere inguru ho-

rren parte garela", adierazi du Beñat Muguruzak. Euskal panorama politikoko eta kulturaleko pertsonaiak zirikatzen dituzte, esaterako: Arnaldo Otegi, Bilduren Gipuzkoako Foru Aldundia, Carlos Urquijo, Orreaga Iritzi Taldea, Bernardo Atxaga edo Xabier Silveira. Umorez zipriztinduta lantzen dituzte gaiak, baina ikuspegi kritiko batetik. Abesti horietako batzuk gaztetxeetan jotzeko arriskua izan dezake. Orain arte, ordea, ez dute inolako arazorik izan. "Hasieran beldur pixka bat geneukan. Pentsatzen genuen, abesti batzuk kantatuta, jendea gainera botako zitzaigula", onartu du Xabi Burgaña. Ikusleen erantzuna, aldiz, nahiko "epela" izan dela esan du Beñat Muguruzak: "Jende batek onartu digu gauza batzuekin ez dagoela ados. Baina orokorrean, zoriandu egin gaituzte, abesti originalak egin ditugulako".

Talde askoren originaltasun falta salatuta, hain zuzen ere, Muguruzak: "Taldeak ezker abertzalearekin posizionatzen dira, publiko jakin baten onarpena jasotzeko eta zirku horretan sartzeko. Euskal rock

mainstream-a entzutea besterik ez dago. Ez dago inolako autokritikarik". Punk kontzertuetara hurbiltzen denean, aspertu egiten dela baieztatu du gitarra jotzailleak. Ez duela inolako probokaziorik ikusten: "Gai delikatuetan sartzeak ematen dio punk izaera talde bati. Publikoak espero duena esatea ez da apurtzailea". Probokatzeko ahalmena badute behintzat Homonimoa diskoa osatzen dute hamahiru kantuek. Auto-ekoizpenaren bidea hautatu du Pecoza United, errazena eta azkarrena delako. Petruska Records zigiluko Aitor Perezekin grabatu dute, eta diskoak etxean egin dituzte. Artisau-lanaren arrazoia azaldu du Lander Bidaurrek: "Bandcamp-en doan entzun daiteke. Baina disko fisikoa ere atera nahi genuen, ilusioa egiten zigulako. Gainera, lagunek eskatu egiten digute". Taldekideei eskatzea da, hain zuzen ere, Homonimoa eskuratzeko modurik zuzenena. Urdanibia plazaren inguruko tabernetan ere aurki daiteke. Laster egin beharko dituzte disko gehiago, lehen sorta laster amaituko baita.



## Ketty's Academy

- Klaseak taldeka era pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesarekin ikaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

EGONAJAK EUUetako familiarekin



J. M. Iparragirre  
kalea 10 - behe 4  
IRUN  
652 777 360  
kettysacademy@gmail.com

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

# “Abentura etxean hasten da”

XABIER ZUBIZARRETA



Tringudi Ikastolan eta Pio Baroja Institutuan ibili ondoren, Telekomunikazio Ingeniartzako Gradua ikasi zuen Xabier Zubizarretak. Donostian aritu zen, Nafarroako Unibertsitateko Tecnun Ingeniaritza Eskolan. Gradu Amaierako Lana egiteko, Alemaniako bidea hartu zuen. Urte bete eman du Nurenbergen, Bavarian. Orain, atsedena hartzen ari da etxean, Irunen, urrian berriro hegazkina hartu aurretik. Masterra hasiko du orduan, Erlangeneko Unibertsitatean.

## Zerk eraman zintuen Alemaniara?

Fraunhofer Institutuarekin lankidetzaz hitzarmena zuen unibertsitateak. Gradu Amaierako Lana eta praktikak Nurenbergen egiteko aukera eman zidaten, eta ideia ona iruditu zitzaizkidan. Urte erdia egin ondoren, beste erdian ere han gelditzeko eskaintza egin zidaten.

## Nurenbergen bizirik izan zara urte honetan. Bavarian dago, Europako lurralde aberatsenetako batean. Egunerokoan, zertan antzematen da hori?

Kalean nabari den giroan. Jendeak bizimodu lasaia darama. Kalean, supermerkatuetan edo tabernetan ikusten da hori. Elkarriketetan ez da lanari edo beste kezkei buruz hitz egiten. Banalagoak izaten dira gaiak.

## Nolako lan baldintzak topatu dituzu?

Hasieran proiektua egitera joan nintzen, praktiketako kontratu batekin. Kontuan izanda karrera bukatu berriaren nengoela, eta alderatuta hemengo aukerekin, ez naiz batere kezkatzen. Azpimarratzeko da lan giroa. Ez dago beste leku batzuetan topa daitekeen lehiakortasun hori. Ni berehala hartu ninduten taldeko bat gehiago izango banintz bezala. Tratu berdina eman zidaten. Hemen, aldez, enpresetako hierarkiak pisu handiagoa du.

Hala ere, denok entzun ditugu, Alemaniara sekulako prestakuntzarekin joan eta

## gustuko lanik topatu ez dutenen kasuak. Zergatik gertatzen da hori?

Bai, nik ere ezagutzen ditut halako kasuak. Jende batek badu ohitura abentura hutsen joateko. Hegazkinerako txartela hartu eta lehen gaua non pasako duen jakin gabe. Horrek arrisku handia du. Bi masterrekin oilaskoa saltzen amaitu dezakezu. Ondo mugitzen jakin behar duzu halako egoera batean aurrera ateratzeko.

## Zein aholku emango zenuke zuk, orduan?

Esango nuke abentura etxean hasten dela. Aldez aurretik dena lotuta utzi behar dela, ahal dela. Lan kontratua eta etxeko giltzak eskuan dituzula joatea da onena. Gaur egun, internet eta teknologia berriak erabilita, badaude guzti hori kudeatzeko tresnak.

## Etxebizitzari dagokionez, zer nolako merkatua topatu duzu?

Nik zortea izan nuen, enpresak bazuelako bere etxebizitza parkea. Praktiketan joan ginen ikasleoi pisu txiki bana utzi ziguten. Bestalde, alokairuan oinarritutako merkatu aktiboa dago Alemanian. Mugimendu handia dagoenez, erraza da alokairuko etxebizitza merkea lortzea.

## Hizkuntza ikasten ari zara. Kostatu al zaizu?

Topatu dudan arazo handienetakoa izan da. Ideiarik gabe joan nintzen. Aleman klaseetara joaten hasi nintzen, nire kabuz

ikasten ere aritu nintzen, eta ahal bezain beste erabili nuen bertakoeekin. Gaur egun, komunikatzeko moduan moldatzen naiz hizkuntzarekin.

## Alemaniarrek nolakoak dira atzerriarrekiko?

Denetarik topa daiteke. Nire kasuan, nahiko eskuzabal hartu ninduten. Ni unibertsitate giroan mugitzen nintzen, hori kontuan hartzeko da. Aipatzeko da Alemanian badutela ongi etorri kultura deitzen den kontzeptu bat. 1960ko hamarkadaz geroztik langile pila bat jaso dituzte, eta ohituta daude.

## Haien ohituren artean, zer iruditu zaizu bereziki bitxia edo deigarria?

Legeari dioten errespetua. Muturreraino eramaten dute. Goizeko hiruetan, kale guztia hutsik dagoenez, semaforoko argia berde jarri arte itxaroteko gai dira.

## Bizikletan ibili zara han alde batetik bestera. Zer azpimarratuko zenuke garraioari dagokionez?

Oso lurralde laua da. Bizikletan 20 km egin ditzakezu ia konturatu gabe. Garraio publikoarekin, berriz, ezustekoa hartu nuen. Garestia da, eta atzerapen handiak egoten dira. Nahiko eskasa da zerbitzua.

## Orain Erlangenera lekualdatuko zara, masterra ikastera. Unibertsitateei dagokionez ere, alde handia al dago?

Nirekin batera praktiketan aritu diren

beste ikasle asko Erlangeneko unibertsitatei zetozen. Beraz, banituen hango erreferentziak. Esango nuke baietz, alde handia dagoela. Hasteko, han unibertsitateak doakoak dira, eta garrantzia izugarria ematen diote ikasleari eta ikasleen munduari: klubak, eskolaz kanpoko jarduerak... Ikasle kultura garatua dute.

## Beste bi urte behintzat egin beharko dituzu Alemanian masterra ikasten. Ez al duzu bueltatzeko eta etxetik hurbil lana topatzeko gogorik?

Bai, baina lau hilabete behin etxera bueltatzeko aukera izango dut. Afera konplexua da hori. Familiaren eta lagunaren ingurura bueltatu nahi nuke noizbait, noski. Hala ere, lan baldintzak aztertze modukoak dira. Jaioterrira bueltatzearen prezioa zein den ikusi behar da.

## Gero eta gehiago zarete Alemaniako bidea hartu duzuen profesional kualifikatuak. Hemengo agintariak kezkatu behar litzuke errealtate horrek?

Jakina. Herrialde askotan gertatu izan da hori historian zehar. Sobietar Batasuna, esaterako, genio guztiek ihes egin zutelako erori zen, hein handi batean. Agintariek orain egin behar dutena da kanpoan dagoen jendea, edo joateko dagoena erakarri. Hori egiten ez duten bitartean, bide okerra daramate.

## Beste garai baten aztarna

Zailtasunak zailtasun, larunbateroko hitzorduari  
eutsi dio azoka txikiak



Hamarnaka saltoki eta ehunka erosle biltzen dira larunbat goizetan Irungo Urdanibia plazan eta ospitale zaharraren aurrean. Ikuskizun bitxia da azoka txikia, aspaldiko bizi-moduaren oinordekoa. Saltzaileek oihuka iragartzen dituzte produktuak. Erosleak berrikerian gelditzen dira edozein izkinatan, poltsa, karro eta guzti. Zortzi hilabete pasa dira azoka Urdanibiara bueltatu zenetik. Urte osoa egin zuen lehenago erbestean, Dolores Salis kalean, plaza zaharberritzen ari ziren bitartean.

Itxura modernoa du Urdanibia plazak. Baina mantendu ditu ezaugarri historiko eta bereizgarriak: petrila, iturria, aska eta zuhaitzak. Larunbatetako azoka txikia ere berreskuratu du, joan den otsailaz geroztik. Hamarkadetan Urdanibia plazari lotutako elementua izan da. Eredu naturalera itzuli da, beraz. Nortasun handiko jarduerak da merkaturak. Aski da itzuli txiki bat ematea bitxikeria asko antzemateko. Azokak hiru zati bereizi dituela, esaterako. Oinetakoak, arropak eta oihalak saltzen dituzte Urdanibia plazaren alde batean. Bestean, base-ritarrak eta eteko produktuak eskaintzen dituztenak egoten dira. Ospitale zaharra atarian, bestelako elikagaiak saltzen dituztenak. Saltzaileen eta produktuen jatorria askotarikoa da. Fermin Mugaruzak ondo deskribatu zuen azokaren aniztasuna, Azoka Eguna abestian: "Munduari

bir Irun herrian".

Adinari dagokionez, berriz, homogeneoagoa da azoka. Saltzaileen artean ikusten dira neska-mutil gazteak. Diru iturri gehigarria da azoka haientzat. Erosleen profila, ordea, finko samarra da. Egoi Herrero saltzaile irundarrak onartu du bezero gehienak adineko emakumeak direla. Olaberria azoko Itziar Irastorzak baieztapena berretsi du. Alabaina, beste errealitate baten berri ere eman du: "Hurbiltzen diren gazteen artean, gehiago dira gizonezkoak". Herrero bezero fidelak mantentzen dituen arren, azaldu du gero eta gehiago konparatzen duela jendeak saltoki ezberdinen artean: "Garai batean kalitateari begiratzen zitzaion, batez ere. Orain, aldi, prezioari garrantzia handia ematen dio bezeroak".

Zaila izaten da erosleen erabakiak azaltzeko arrazoi orokorrak topatzea. Hala ere, nahiko argi dago azoka txikiaren abantailak zeintzuk diren. "Jendeak badaki bertako produktuak izaten direla, etxekoak. Guk sasoiko barazki freskoak eskaintzen ditugu, bezperan bildutakoak", gogoratu du Itziar Irastorzak. Bezeroarekiko harremana ere azpimarratu dute saltzaileek. Gertuko delat adierazi du Irastorzak: "Supermerkatu batean erosita, tomate txarra baldin bada, ez zara kontu eske joango. Edo esango duzu zer edo zer, baina ez espero erantzunik. Merkatuan, berriz, bezero batek esaten baldin badit tomate bat ez zela ona, beste bat emango diot".

**Iritzi kontrajarriak kokapenaren inguruan**  
Saltzaileak eta bezeroak Urdanibia plazako kokapen berrira ohitzen ari dira oraindik. Azoka txikia ez baita plazako lanen aurrekoaren berdina. Denetarik iritziak daude. "Plaza ondo dago, oso polita da", aitortu du Miguel Ángel Camacho zapata saltzaileak. Gogorra izan da, baina, merkatuaren kokapenaren aldaketan ondorioei buruz hitz egiterakoan: "Dolores Salis kalean egon ginenean, urte oso bat zakarretara bota genuen. Jendeak etortzeko ohitura galdu zuen, eta ezin izan dugu lehengo maila berreskuratu". Erdigunetik urrunago dagoenez, azoka txikira astero hurbiltzeari utzi zioten bezero batzuek. Maiztasunak behera egin zuen nabarmen. "Kontuan hartu behar da gehienak helduak direla, eta oinez etortzen direla, karroarekin", gogoratu du Egoi Herrero.

Abantailak ere bazituen, ordea, Dolores Salis kaleko kokapenak. Doan aparkatzeko lekua dago inguruan, eta bezero askok baliatzen zuten. "Autoz etortzen zen jendearentzat eroso zen. Produktu gehiago, eta pisutsuagoak eros zitzaizkete. Fruta-saltzaileek nabaritu dute gehien", nabarmendu du Itziar Irastorzak. Urdanibia plaza berritzearekin batera, TAO sistema ezarri dute inguruko aparkalekuetan. Horrek kalte handia egin die urrutitik etortzeko ohitura zuten erosleei. Iparraldeko jende askok Irungo azokara hurbiltzeari utzi diola baieztatu du Irastorzak. Lehen hilabeteetan bezeroek jasotako isunen kopurua esanguratsua izan da. Herrero uste du udaltzainek "zorrotzegi" jakatu dutela.

Saltzaileei ere eragiten die aparkalekuaren arazoak. 9:30ak arte autoak sartzen uzten diete, produktuak deskargatzeko. Gero, saltoki bakoitzeko norbaitek aparkaleku bila eraman behar izaten du kotxea, eta 13:30etan bueltatu, materiala jasotzeko. "Dolores Salis askoz erosoagoa zen, autoa ondoan utz genezakeelako", aipatu du Irastorzak. Kritikoa da emakumea Urdanibia plazako kokapenarekin, eta eragozpen gehiago ikusten ditu, gainera: "Urdanibian edozein jai dagoen bakoitzean lekualdatzen gaituzte. Udan batez ere, genero gehien dugun garaietan". Dena den, azokaren arazorik handiena ez da kokapena, ezta aparkalekua ere. "Merkataritza gune handiek eta multinazionalak garmatzate galbidera", salatu du Miguel Ángel Camacho. Kontsumo ohiturek aspaldi hartutako norabidea da azoka txikiaren etsai.

# Korrokoitz 9, eztabaida iturri

Etxebizitza utzi eta eraikinaren eraistea ordaindu beharko dute bizilagunek

Iturgintza lanetan ari zirela, eraikinaren egurrezko egitura desestali zuten. Horrekin batera, bizilagunak, erakundeak eta enpresa pribatuak nahasten dituen gatazka azaleratu zuten. Etxean termitak zituztela jabetu ziren momentu horretan. Baina hariari tiraka, eztabaidaren gainerako osagaiak gelditu dira agerian. Korrokoitz kaleko 9.eko bizilagunen kasuak alerta piztu du eremu osoan.

Eraikina ikuskatu duen arkitektura enpresaren txostenean oinarrituta, erortzeko arriskuan dagoela deklaratu du Irungo Udalak. Bizilagunek abenduaren 9an etxetik kanpo egon behar dute, beranduenez. Bitartean, eraikina zurkaiztu eta astero gainbegiratu dute arkitektoek. Dena den, hori ez da bizilagunen arazo bakarra. Eraikinaren eraistea haiek ordaindu behar dutela ere jakinarazi die Udalak. Lehen kalkuluen arabera, 20.000 euroko kostua izan dezake. Bi familia bizi dira Korrokoitz 9ko eraikinean. Lehen solairuan, 73 eta 76 urteko senar-emazteak. Bigarrenean, jabearen alaba bizi da, bere seme-alabekin. Etxabearen, Alzate ile-apaindegia zegoen. Negozioa uztera behartu dute jabea, eta momentuz, langabezia gelditu da, 52 urterekin. "Izorrotuta gaude", adierazi du Remedios González lehen solairuko emakumeak.

Irailean jakin zuten etxean termitak zituztela. Iturgintza lan batzuen ondorioz konturatu ziren, eta arkitektura enpresa baten zerbitzua kontratatu zuten, egurrezko egituraren egoera ikuskatzeko. Arriskuaz jabetuta, bilera eskatu zuten Xabier Iridoy Irungo Udaleko Hirigintza ordezkariarekin. "Etxea ikustera joan ginen. Udaleko teknikariak eraikina erortzeko arriskuan zegoela berretsi zuten, eta hiru hilabeteko epea eman genien etxea uzteko", azaldu du Iridoy. Jakinarazpen ofiziala jaso ondoren, José Antonio Santano alkatearekin biltzeko eskaera egin zuten bizilagunek. "Jaso genuen gutuna oso hotza zen. Gure ardurak besterik ez zituen aipatzen. Horregatik joan ginen alkatearekin hitz egitera, gizatasun pixka baten bila", argitu du Asier Martinek. Bigarren solairuko e-txebizitzaren jabearen semea da, eta bertan bizi den emakumearen anaia.

Alkateak Gizarte Ongizatea arlora bideratu zituen, beste etxebizitza bat lortzeko irtenbideen bila. Adineko senar-emazteei, Eusko Jaurlaritzaren Alokabide programaren bitartez alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko proposatu diete. Lortzen ez badute, diru-laguntza bat emango diete hilero, etxebizitza baten alokairua ordaintzen laguntzeko. Bigarren solairuko emakumeak Babes Ofizialeko Etxebizitza bat esleitua du Oinaurre eremuan. Bere etxebizitza eraikitzen duten bitartean, alokairu baterako laguntza emango diote. Lourdes Alzate ile-apaintzaileari, berriz, K-Biziak programan parte hartzea proposatu diote. Irungo Alde Zaharra biziberritzeko asmoz, lokalak alokatzeko diru-laguntzak ematen dituzte K-Biziak-en bidez. "Zaila da irtenbide aproposa aurkitzea, familiek jasan duten kaltearen larritasuna kontuan hartuta"

**Sergio Corchón, Gizarte Ongizatea arloko ordezkaria**

Beste proposamen bat ere egin zieten bizilagunei: udalak etxearen eraistea ordaintzea, eta gero orubea erostea, prezioari eraistearen kostua deskontatuta. Asier Martinek azaldu du orubearen balioari buruzko aholkularitza eskatu dutela, eta argi gelditu zaiela udalaren proposamena ez zaiela komeni: "Hiru familieren artean banatu behar harko genuke diferentzia, eta trukean, oruberik eta eskubiderik gabe geldituko ginatke. Karga bat kenduko luke Udalak gaineratik". Desadostasunen aurrean, alegazioa aurkeztu dute bizilagunek, eta prest daude epaitegiatarantz jatzeko.

**Arduraren eztabaida**  
Bizilagunen argudioa da egoeraren ardura guztia ez dela haiena. "Badakigu udala ez dela termiten arduradun. Baina eremuaren egoera orokorrarena bai, bada. Baztertuta izan du eremua aspaldidanik. Ez da sekula lehen-

harko genuke diferentzia, eta trukean, oruberik eta eskubiderik gabe geldituko ginatke. Karga bat kenduko luke Udalak gaineratik". Desadostasunen aurrean, alegazioa aurkeztu dute bizilagunek, eta prest daude epaitegiatarantz jatzeko.

harko genuke diferentzia, eta trukean, oruberik eta eskubiderik gabe geldituko ginatke. Karga bat kenduko luke Udalak gaineratik". Desadostasunen aurrean, alegazioa aurkeztu dute bizilagunek, eta prest daude epaitegiatarantz jatzeko.



tasuntzat hartu", argudiatu du Martinek. Udalak berriz, erantzukizunik ez duela baieztatu du. Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak eman du azalpena: "Momentu honetan ez dago Udalak ardura duela esaten duen txostenik. Hori frogatzen baldin bada, hartu beharreko neurriak hartuko ditugu. Baina momentuz, ardura hori frogatzen duen dokumenturik ez dago". Etxea behar bezala zaintzeko gai izan ez direla leporatu dietela adierazi du Asier Martinek. "Hori ez da bidezkoa", salatu du.

1999 urtean, hiri-antolamendutik kanpo utzi zuen Udalak Korrokoitz. Eremua berriro urbanizatzeke asmoa zuen. Orduz geroztik, sententziatuta egon da eraikina. Hala ere, konponketa eta atontze lanak egin dituzte, etxean eroso bizi ahal izateko. "Inbertsioak egin ditugu, baina tamaina batekoak, jakinda gertuko egun batean etxea botako zutela", nabarmendu du Martinek. 2008an, PAU urbanizaziorako ekinza plana onartu zuen Irungo Udalak, eta Korrokoitz eremua sartu zuen proiektuan. Ibañaren izpia izan zela gogoratu du Asier Martinek: "Planoak ikusi genituen, eta kaltetuen artean geundela konfirmatu ziguten. Horrek, eremuan beste etxebizitza bat izateko eskubidea ematen zigun".

Alabaina, proiektua geldirik dago orduz geroztik. "Eremua oso konplikatu da, enpresa pribatuaren esku dagoelako", azaldu du Xabier Iridoy. 2000 urtetik aurrera, zenbait inbertsorek lursailak erosi zituzten eremuan. Guztekin negoziatu behar izan du Udalak, eta ezinezkoa izan da akordioa. Neurri handi batean, eremuaren atzean dagoen kanalaren obra nork ordainduko duen adostu ez dutelako. Beste arazotako bat bizilagunak bereaiek direla uste du Martinek: "Gu ere karga bat gara, beste etxebizitza bat eman behar digutelako". Etxea eraisten dutenean ordea, eskubide hori galduko dute Korrokoitz 9ko bizilagunek. "Proiektua aurrera eraman arte etxea zutik mantendu ez izana leporatu digute. Baina hamabost urte eman ditugu zain", azpimarratu du Asier Martinek.



Edozelan ere, Korrokoitz eta Papinea eremuen egoera kezagarria da. XX. mendeararen hasierako eraikin zaharkituek gainera, baratzeak, sastrakak eta hondakinak daude, Irungo erdigunetik oso-oso gertu. Agerikoa da birmoldaketa behar duela eremuak. "Nire aldetik, ahaletin guztiak egingo ditut proiektua mugiarazteko", zin egin du Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak. Momentuz, argi dagoena da abenduaren 9an Korrokoitz kaleko eraikina utzi beharko dutela bizilagunek. Eta ez daudela konforme udalak proposatutako aterabideekin. Helegite kontentzioso-administratiboa jartzea izan daiteke hurrengo urratsa. Asier Martinek ez daki noraino helduko diren: "Uste dut bidea aspektu ekonomikoak markatuko duela. Luzea eta garestia baita administratzaioaren aurkako prozesu batean sartzea". Ziurgabetasunean bizi dira Korrokoitz 9n.

## Irungo arabiarren begirada

**Komunitate islamikoko lau lagun bildu dira, integrazioaz, islamofobiaz eta nazioarteko egoeraz hitz egiteko**

Azaroaren 14ko goizaldean, ikur judutar bat margotu zuen norbaitek Irungo meskitaren aurrealdean. Parisko atentatuen ondoren EAEko komunitate islamikoak salatutako lehen eraso izan zen. Barakaldoko eta Gasteizko meskitetan ere ikur eta irain islamofoboak agertu ziren hurrengo egunetan. "Salaketa jarri dugu, baina ez diogu garrantzia handirik eman. Batez ere, Irunen halako zerbait gertatzen den lehen aldia delako. Nahiago izan dugu lasai hartu eta ahaztu", argitu du Mohammed Mbarek sahararrak. Lau magrebtar elkartu ditugu Adiskidetuak elkartearen egoitzan. Etorkinentzako aholkularitza juridikoa eskaini ohi dute bulegoan, baina gaur tertuliarako gune bihurtu da.



Argazkian Mourad Abbidi, Abdelaziz Bahouss eta Bouchra Bahouss.

Zuhurtziaz, eta asaldatu gabe bizi dute Irungo komunitate arabiar-islami-koan islamofobia erasoen gaia. Dena den, kezka ere badute, jakina. "Gure komunitatean badago jendea

kartean eta elkarbizitza batzordean parte hartzen du, adibidez. Duela urte eta erdi iritsi zen Irunera, Abdelaziz senarrarekin eta seme-alabekin batera. Lehenago, Teruelen eman zi-

nahasmen handia dago. Baina islamaren oinarria moderazioa da. Bi muturrak dira okerrak: gehiegizko lasaikeria, eta fanatismoa".

El Estatu Islamikoaren moduko taldeen atzean, Koran liburu sakratuaren interpretazio okerra dagoela berretsi dute hizketakideek. Errekrutatzen dituzten gazteak engainatuta eramaten dituztela

nista izan diren Parisko Saint-Denis edo Bruselako Molenbeek adibide izan daitezke. Etorkin txiroak biltzen dituzten auzo degradatuak dira. "Ikasteko edo lan egiteko aukerarik ez duten gazteak bizi dira auzo horietan. Noraezan ibiltzen dira, zereginik gabe. Azkenean trafikatu edo beste delituetan amaitzen dute. Elrentzat oso erakargarriak dira", aipatu du Bouchrak.

kontuan hartu gabe", gogorazi du Mohammedek. Ekialde Hurbila lurralde aberatsa da baliabideetan, baina korapilatsua etnien eta islama ulertzeko moduen arteko gatazkei dago kienez. "Mendebaldeko potentziak interes ekonomikoengatik sartu dira, eta sekulako kaosa utzi dute", azpimarratu du Abdelazizek. Estatu Islamikoa kaos horretatik sortu dela uste du marokorrek: "EEBBek %60 edo %70eko ardura dutela esango nuke".

Estatu Islamikoaren lehen biktimak, Siriako eta Ekialde Hurbileko herritarrak izan dira. "Egunero ehunka lagun hiltzen dituzte, adin guztietako emakumeak eta gizonak. %90 baino gehiago, musulmanak", nabarmendu du

Abdelazizek. Gainera, Siriako gerrak ehunka mila errefuxiatuaren ihesa eragin du. Drama horren aurrean, Europako herrialdeen erantzuna "lotsagarria" izan dela uste du Mohammedek: "Lehenago hamar-hamaika errefuxiatu hartu dituztela ikusi nuen telebistan. Bitartean, hotzak eta goseak akabaten ari dira beste milaka lagun". Arazoari irtenbidea emateko, hegazkinak bidali dituzte mendebaldeko herrialdeek, Siria bombardatzen. "Frantziak gerran gastatuko duen dirua auzo marjinalak berregituratzen eta biziberritzen erabili behar luke", salatu du Bouchrak. Bestelako irtenbideak badaudela uste dute solaskideek.

"Egokitzen ahalegindu naiz, gizarte honetan bizitzea erabaki dudalako"

### Bouchra Bahouss

hamabost-hogei urte daramatzana Irunen bizitzen, arazorik eduki gabe. Baina Parisko atentatuen moduko gertaerak izaten direnean, elkarbizitzan eragin kaltegarria izan dezakete", adierazi du Mourad Abbidi marokorrek. Lau urte daramatza Irunen, eta ez du inoiz arazo handirik izan, ez bizilagunekin ezta kalean ere. "Jendea errespetatzen duzunean, zu ere errespetatzen zaituzte", erantsi du. Aitortu du, hala ere, begirada deserosoak jasan behar izaten dituela, bizar luzea eta iluna daramalako.

"Bizarra daramaten gizonak eta beloa daramagun emakumeok sufritzen dugu begirada eta zurrumurru gehien", onartu du Bouchra Bahouss: "Hala ere, ezagutzen gaituztenean, aurreiritziak alde batera uzten dituzte". Bouchrak harreman handia du bertakoekin. Eraikinean, etorkinen familia bakarra da beraiena. Gainera, eskolako gurasoen el-

tuzten hamabi urte. Integratuta baino, egokিত dagoela uste du Bouchrak: "Integrazioa oso termino zabala dela iruditzen zait. Ni egokitzen ahalegindu naiz, gizarte honetan bizitzea erabaki dudalako".

Jarrera arrazistak, komunikabideek musulmanei buruz ematen duten irudi desitxuratuarekin lotu ditu Mohammedek: "Droga trafikoa eta bestelako gatazkek musulmanekin lotzek min handia egiten digu". Terrorismoari lotuta ere, hedabideek mezu okerrak zabaltzen dituztela uste dute laurak. "Komunikabideek islamofobiaren alde egiten dute batzuetan. Orokorrean, ezjakintasun handia dago. Guk edozein talde erradikal bazterten dugu", azpimarratu du Bouchrak. Haiek bezala, musulmanen gehiengo handi batek indarkeria bazterten duela argi utzi nahi izan dute. Islamaren erroertara jo du Abdelazizek azalpena emateko: "Orain

"Mendebaldeko potentziek banatu zituzten herrialdeak, bulegoetan"

### Mohammed Mbarek

uste du Abdelazizek: "Europako auzo marjinaletako jendea hautatzen dute, arabieraz ez dakiena. Hizkuntza ulertzen ez baduzu, interprete baten beharra duzu Korana irakurtzeko, eta interprete horrek nahi duena helarazten du". Azken asteotan protago-

**Ardurak eta irtenbideak** Edonola ere, Estatu Islamikoaren jatorria ez dago Europako auzo marjinaletan, Ekialde Hurbilean baizik. "Mendebaldeko potentziek banatu zituzten herrialdeak, bulegoetan. Gaizki egin zuten banaketa, hango errealitatea

"Islamaren oinarrria moderazioa da"

### Abdelaziz Bahouss

## Olaizola

Immobilari agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 ● 20302 IRUN ● Tel: 943 626585  
 info@inmobiliariaolaizola.com  
 www.inmobiliariaolaizola.com

LEA ETXEBARRIETA, errugbi jokalaria

**“Oso inklusiboa da errugbia”**

“Emakumeen errugbian denok laguntzen diogu elkarri, badakigulako aurkaririk gabe ez dugula partidarik edukiko”

“Taldeen arteko harreman ona mantentzeko baliagarria da hirugarren denbora”

Hendaian bizi da Lea Etxebarrieta, baina ia denbora gehiago ematen du Irunen eta Hernanin. Txingudi Rugby Taldean emakumezkoen sekzioa sortzeko lanean dabil, buru belarri. Bi denboraldi daramatzate proiektuarekin. Momentuz, animatu dituzten neskek ez dira taldea osatzeko aski. Beraz, lehiatu nahi dutenak Hernanirekin ari dira, bi elkar-teek lortutako akordioari esker. Bitartean, eskolaz-eskola ari dira, neskek Plaiaundira erakarri nahian.



#### Nola harrapatu zintuen errugbiak?

Kanarietan ikasten nengoenean izan zen. Lagun batekin surfean ibiltzen nintzen orduan. Errugbian probatzera animatu nahi ninduen, baina nik ez nuen joan nahi, kirol gogorra eta agresiboa iruditzen zitzaidalako. Hala ere, probatzera animatu nintzen egun batean, beste neska batzuekin batera. Azkenean, beste horiek ez ziren gelditu. Ni bai, ordea.

#### Kanarietatik bueltan, Plaiaundin jarraitu zenuen.

Kanarietako azken urtean probatu nuen errugbia, eta bueltan, nesken talde baten bila hasi nintzen inguru honetan. Nire ahizpak bazuen lagun bat, ahizpa Irungo errugbi elkartearen zuena Nik, orduan, ez nekien Irunen errugbi elkarte zegoenik

ere. Baina Plaiaundira hurbildu nintzen, eta besoak zabalik hartu ninduten. Nesken taldea sortu nahian ari ziren orduan.

#### Oraingoz Hernani taldearekin lehiatzen ari zarete. Zergatik?

Momentuz ez dugu lortu soilik Irungoa den taldea eratzea, neska nahikorik ez dagoelako. Horregatik ari gara Hernanikoekin batera. Akordio ona dela uste dut. Hernaniri ondo datorkio, neska gehiago dituelako, aldaketak egin ahal izateko. Kontuan hartu hamabost neska behar direla zelaian, 80 minutuz. Guretzat ere ona da, asko ikasten ari garelako. Asteartetan Hernanin entrenatzen dugu, asteazkenetan Irunen, eta ostiraletan Hernanin. Irungo entrenamendua 19.00etan Plaiaundin izaten da, eta lasaia da, hasiberrientzat egokia.

Hori bai, asmoa da etorkizunean Irunen taldea ateratzea. Berrin orain izango da guretzat, eta gainerako elkar-teentzat ere. Momentu honetan sei talde besterik ez gara Euskal Ligan. Horregatik, beste talde bat sortzea albiste ona da denentzat. Emakumeen errugbian denok laguntzen diogu elkarri, badakigulako aurkaririk gabe ez dugula partidarik edukiko.

#### Eskolaz-eskola ari zarete, neskek animatu nahian.

Bai, adin guztietako neskek bilatzen ari gara, errugbi eskola ere badugulako,

ligande goizetan. Zortzi urtetik gorako edonor etor daiteke Plaiaundira, errugbian aritzen ikastera. Orain eskolan dauden neskek etorkizuneko taldearen oinarri izango dira.

#### Zer esaten diezue neskel, errugbian has daitezten?

Batez ere, aurreiritziak baztertzen saiatzen gara. Batetik, esaten diegu errugbia ez dela dirudien bezain agresiboa. Bestetik, azpimarratzen diegu edonork izan dezakeela lekua errugbian. Niri horregatik gustatu zitzaidan hainbeste, oso inklusiboa delako. Adibidez, neska gizen asko ez dira kirolean hastera ausartzen. Errugbian, aldiz, badute haien lekua. Argalek eta azkarrek ere bai. Norbera bere gorputzarekin pozik egon daiteke errugbian, bere lana ondo bete dezakeela ikusten duelako. Iruñeko La Unica taldean, badago neska bat balleta eta errugbia egiten dituen. Hortxe duzu adibidea.

#### Zaila al da errugbiaren arauak barneratzea?

Nik bi urte daramatzat errugbian jokatzeko, eta oraindik ez dakizkit arau guztiak. Hasieran, oinarriko lau gauzak ikasita partidan sartu zaitezke. Gainerakoa, pixkanaka ikasten da. Gogoa behar da, besterik ez. Gehienetan, lehen entrenamenduan ikusten da errugbia gustatuko zaizun edo ez. Hasieran zaila izaten da, ez duzulako kirola

ezagutzen. Baina azkar ikasten da.

#### Hirugarren denbora da errugbiaren ezagarririk famatuenetako bat. Zenbaterako garrantzia du?

Hirugarren denbora derrigorrezkoa da. Kontaktuko kirola da errugbia, eta beharrezkoa da errespetua mantentzea. Taldekideekiko, aurkarietako eta epaileetako ere bai. Errugbian ondo barneratuta dago epailek gabe ezin dela jokatu, eta bera dela jokoa garbia izan dadin bermatzeko ardura duena. Zelaian errespetua mantentzen da, eta jokoa izan diren gorabehera guztiak hirugarren denboran konpontzen dira, giro onean. Aurkari bati kolpe txar bat eman baldin badiozu, gero barkamena eskatzen diozu. Taldeen arteko harreman ona mantentzeko elementu baliagarria da.

#### Ezagutzen al duzu Iparaldeko errugbiaren mundua? Alde handia dago?

Sekulako aldea dago Irungo elkartearen eta Hendaia-koaren artean. Mailari dagokionez, baina baita aurrekontuari eta azpiegiturari dagokionez ere. Dena den, talde txiki batean egoteak badu bere xarma. Aurrerago aurrerago denez, harreman sendoa sortzen da taldekideen artean. Irunen elkarri laguntzen saiatzen gara beti, eta prest gaude ikastetxetara joateko edo beste edozertan parte hartzeko. Bakoiatzak ahal duen ekarpena egiten du.



**IRAITZ ARABOLAZA, artista:**

## “Nahiko obsesiboa naiz proiektu berriak ditudanean esku artean”

Inauterietako kartel lehiaketa irabazi zuen, eta han eta hemen ibili zen bere *Mozorro komiki*. Iraitz Arabolazaren lana eza-gutzeko lehen aukera izan zen irundar askorentzat. Baina gaztea izanagatik ere, urteak daramatza artearen munduan murgilduta. Txingudi Ikastolan eta Pio Baroja institutuan ibili ondoren, Arte Ederretako ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean. Ez du bere helburua ezkatatu: “Artetik bizi nahi nuke”. Ahaleginak egiten ari da.

### Noiz piztu zitzaizun artearekiko interesa?

Betidanik gustatu izan zait. Txiki-txikitan hasi nintzen marrazkiak egiten. Gurasoek, hori ikusita, laguntza handia eman zidaten. Pintura eta eskulan tailerretara eramane ninduten. Mundu horrekin lotuta ibili izan naiz beti.

### Txikitako marrazkietatik Arte Ederrak ikastera badago jautzia. Zergatik eman zenuen?

Argi neukan Arte Ederrak ikasiko nituela. DBHn, jada, ildo artistikoko hautazko ikasgaiak aukeratu nituen, bide hori jarraitzeko asmoz. Ondoren zer egingo nuen, ez nekien. Baina Arte Ederrak ikasiko nituela, ziur. Senideen eta lagunen erabateko babesa izan nuen, gainera. Gaur egun, ez dut uste beste lanbide asko baino okerrago dagoenik.

### Nola gogoratzen duzu unibertsitateko garaia?

Lehen urtea ederra izan zen. Beste mundu bat esploratzearan moduko zerbait. Jende eta giro berriak ezagutu nituen, irakasgaietan ere oso gustura ibili nintzen, dena probatzen eta kuxkuxean, etengabe. Gero, bigarren mailan, Bolonia plana sartu zen indarrean, eta zeharo aldatu zen sistema, eta fakultateko giroa ere bai. Beste itxura bat hartu zuen, serioagoa eta itxiagoa. Ondorioz, hirugarren mailan kanpora joatea erabaki nuen. Argentinan egon nintzen, eta beste mentalitate batekin bueltatu nintzen.

### Baloratzen al duzu fakultatean ikasitakoa?

Karreraren zehar iruditzen zitzaidan ez nintzela ezer ikasten ari. Nik uste pentsamendu hori nahiko orokorra dela. Denborarekin konturatu naiz baietz, oinarriko jakintza batzuk landu nituela. Sentsibiltatea barneratu dut, eta gauza batzuk modu automatikoan antzematen ditut orain. Gure karrera oso praktikoa da, eta konturatu gabe ikasten dituztu gauza asko. Gerora ikusten da horren emaitza.

### Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko masterra ikasi zenuen. Irakaskuntzara bideratu nahi zenuelako, edo beste irtenbiderik ikusten ez zenuelako?

Hasi, beharbada, amak bultzatuta hasi nintzen. Ate hori ez isteko, badaezpada. Baina egia esan, praktiketan oso gustura ibili nintzen. Orain Oiarzungo Haurtzaro Ikastolan lanean nabiltzen, haurrei eskulana egiten erakusten. Dena den, irakaskuntzan murgilduta ere, nire proiektuak ez ditut alde batera utziko.

### Pintura landu duzu, erretratua batez ere. Nola azalduko zenuke zure estiloa zein den?

Espresionismoaren eta fauvismoaren artean kokatuko nuke. Koloreak indar eta garrantzia handia du nire lanean. Egia da erretratuak asko gustatzen zaizkidalako. Erakargarriak iruditzen zaizkidan aurpegiak aukeratzen ditut. Baina ez ederrak direlako, bakarrik. Adineko jendeak, adibidez, asko erakartzen nau. Haien azaleko zimurrekin eta testurekin. Bestalde, pertsonaren istorioa ezagutzea gustatzen zait, erretratuaren bidez irudikatzen saiatzeko. Gero, bakoitzak nahi duen bezala interpreta dezake.

### Mamarratxuk marka sortu duzu, eta bitxiak saltzen dituzu.

Duela bi urte inguru hasi nintzen eskumuturrekoak, belarritakoak, lepokoak eta abar egiten. Lagunei saltzen dizkiet, internet bidez ere bai. Batzuetan azoketan ibiltzen naiz, doan edo oso merke direnetan, behintzat. Mamarratxuk marka sortu dut, produktzioa gero eta handiagoa zelako, eta izena eta logotipoa edukitzeak beste osotasun bat ematen ziolako.

### Non egiten duzu lan? Ba al duzu tailerrik?

Gurasoekin bizi nintzanean, ganbara handi bat nuen. Nire logela eta tailerra zen. Han



lurrean jartzen nintzen, lasai ederrean. Orain etxe txiki batean bizi naiz, eta egongela desmuntatu behar izaten dut lurrean jartzeko. Proiektu bati heltzen diodanean, dena hankaz-gora jartzen dut.

Nahiko obsesiboa naiz proiektu edo ideia berriak ditudanean esku artean. %100 murgiltzen naiz. Batzuetan gehiegi, bizitza soziala ere alde batera uzten dut. Urtarrilean zeramika klaseetara joaten hasi nintzen, eta orain jo eta su nabil horrekin.

### Zaila da artea ogibide bilakatzea?

Hori da nire helburua, eta horretan ari naiz, pixkanaka. Kontua da denbora guztian lan bila ibili behar zarela, batetik bestera. Gainera, ni ez nago ezertan bereziki espezializaturik. Esparru zabala hartzen dut: pintura, bitxiak, muralak... Enkarguekin eta ikastetxe-etako lanekin ari naiz aurrera egiten.

### Zein proiektutan zabilta orain lanean?

Erakusketa kolektibo batean parte hartuko dut, Antxeta Irratiaren hamabosgarren urteurrena dela eta. Bost artista izango gara, eta Hondarribian, Irunen eta Hendaian ikusi ahal izango dira gure lanak. Hiru erretratu prestatzen ari naiz. Bestalde, martxoan artisau azoka pare batean egongo naiz.



## MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXEETAN NAHIZ DENDETAN

- ✓ Arotzeria
- ✓ Margolanak
- ✓ Zaharberritze lanak
- ✓ Lorategiak
- ✓ Iturgintza
- ✓ Sarrailak
- ✓ Elektrizitatea
- ✓ Instalazio zein muntaketak
- ✓ Garbiketa bereziak eta abar

**DAVID: 655 70 98 93**



## Ukapenaren kontra

*Haien errealitatea azaleratzeko pausoa eman dute eskualdeko haur transexualek. Ingurukoek haien identitate sexuala onar dezaten eskatu dute*

Naturaltasun harrigarriarekin gidatu du Leok taldetxo. Argazkia ateratzeko lekua eta modua proposatu ditu. Esperientzia handia du jada, telebistetan, irratieta eta egunkarietan atera baita azken asteotan. Albiste izan da hamaika urteko gazte irundarra, pubertaroko aldatetak blokeatzeko tratamendua jasotzen ari den lehen haurra baita EAEn. Baina ez da bakarra izango, haur transexualitate kasuak gero eta gehiago azaleratzen ari baitira. Garazi irundarrak ere tratamenduari ekingo dio laster, nahi ez dituen ezaugarri fisikoak garatzen hasi baino lehen. Zuhar hondarribiarrak ez du tratamenduaren beharrik, momentuz behintzat, sei urte besterik ez baititu. Txiki-txikitatik izan du argi, hala ere, mutila dela. Ingurukoek neska gisa hartu izan badute ere. Pertzepzio okerra baitago transexualitatearen oinarrian.

"Guapa ez, guapo", zuzentzen hasi zen Zuhar, hiru urte besterik ez zituela. Gurasoek harriduraz hartu zituzten halako erreazioak, hasieran. Baina ez zieten aparteko garrantzirik eman. Seinaleak gero eta agerikoagoak izan ziren, ordea. Haurrak ez baitzuen inolako zalantzarik. "Sexua ez da hankartean dagoen zerbait. Kontzientzia kontua da", argitu du Aingeru Mayor sexologoak. Chrysalis Euskal Herria, Adin Txikiko Transexualen Familien Elkartearen presidentea da Mayor. Transexualitatearen ulertzeko azalpen argia eman du: "Haurra jaiotzerakoan, sexua iragarri egiten da, genitalai begiratuta. Probabilitate handiarekin, zakila eta barrabilak izanez gero, mutila izango da, eta alua izanez gero, neska. Baina batzuetan ez da hala izaten". Okerreko gorputzean jaiotako haurren espresioa erabili izan da maiz. Mayorrek guztiz baztertu du: "Nola izango da ba okerra norberaren gorputza? Ez ote da okerra besteon begirada?".

Begirada hori aldatzea ez da batera erraza. Etxekoentzat, hasteko. "Gogorra da onartzea", aitortu du Patricia Dominguezek, Zuharren ama. Ukatu ere egiten dute, batzuetan, gurasoek. Ezjakintasunagatik, batez ere. Horixe egin zuen Beatriz Arizak, Garaziren ama, Santo Tomas Egun batean. Ustezko semeak emakumezko baserriarren jantzia jartzeko eskatu zionean: "Ez maita, zuk beste hau jantzi behar duzu, mutila zarelako". Amaren azalpenak ontzat eman zituen orduan haurrak. Txikitik, umeez ez

baitutuzte gurasoen esanak zalantzan jartzen. "Haur bati azalpen koherente bat eman baldin badiozu, berak egiazkotzat joko du. Baina okerra izan daiteke", gogorarazi du Mónica Zamorak. Leoren ama ez dio haurrari sekula oztoporik jarri. Ille motza eduki izan du beti, eta mutilen arropak jantzi izan ditu. "Ez dut armairuan ezertxo ere aldatu behar izan. Izena besterik ez", berretsi du Leok. Alabaina, ingurukoaren erreazioa ez da etxe guztietan positiboa izaten.

Errealitateari aurre egin nahi ez, eta alde batera utziz gero, beste momenturen batean etzanda egingo du azkenean. Leoren eta Garaziren kasuan, esaterako, pubertaroko gorputzaren aldaketak sentitzen hasi bezain pronto. Ezin zuten gehiago itxaron. "Larritasun handiko momentuak izan ziren. Ez zuen jaten, eta ez zuen eskolara joan nahi. Asko sufritu zuen, gustuko ez dituen ezaugarri fisiko batzuk garatzen hasiko zela konturatu zelako", azaldu du Mónica Zamorak. Identitate sexualaren berri ematen hasteko erabakia hartzeko, kontsulta eta proba askoren ostean, funtsezkoa izan zen haur transexualak protagonista dltuen TVeren *El sexo sentido* dokumentala ikustea. Gurasoentzat, eta haurrentzat. "Gertatzen ari zitzaien identifikatu zuten, eta konturatu ziren bazeudela haien moduko beste haur gehiago ere", aipatu du Beatriz Arizak. Chrysalis elkartearen berri izatea eta beste gurasoekin harremanetan jartzea ere oso lagungarria izan zen.

**Mónica Zamora**

"Larritasun handiko momentuak izan ziren, gustuko ez dituen ezaugarri fisikoak garatzen hasiko zela konturatu zelako"



### Aldaketa, pausoz pauso

Pixkanaka eman dituzte familiek hurrengo urratsak. Anai-arrebei azaldu diete lehenengo, eta beste senideei, ondoren. "Baldintzarik gabeko maitasuna zenbaterainokoa den agerian gelditu da", adierazi du Arizak. Bere beste alabak, naturaltasunez hartu du Garazi ahizparen erabakia. Baita aiton-amonak ere. Familien babesa oinarritzkoa dela uste du Patricia Dominguezek: "Kanpotik etor daitezkeen aurreiritziei edo erasoei aurre egiteko tresnak ematen dizkiegu. Ez baitugu ahaztu behar bullying kasuak eta intolerantzia handia ere topa daitezkeela". Ikastetxeetako zuzendaritzarekin eta irakasleekin harremanetan jarri dira ondoren, haurren identitate sexualaren berri emateko. Eta haurrek hautatutako izena erabiltzen has daitezten eskatzeko. Jasotako erantzunekin pozik dago Beatriz Ariza: "Jakin-mina, sentsibilitatea eta interes handia topatu ditugu. Arazorik gabe egin dugu prozesua ikastetxean ere".

Zuharren ikasgelan, adibidez, giza gorputza lantzen hasi dira. Eta irakasleak, bere arduraz jabetuta, Chrysalis elkar-

tearekin harremanetan jartzea erabaki du, gaiari heltzeko modu egokienaren bila. Orokorrean, neskek alua eta mutilak zakila eta barrabilak izaten dituztela azalduko du. Baina salbuespenak daukela ere zehaztuko du. "Txikitatik azaltzen baldin bazaie, haurrek barneratu egingo dute", aipatu du Patricia Dominguezek. Leoren arreba, ordea, ohiko azalpena jaso du eskolan, anaiaren kasua gertutik bizi izan baldin badu ere. Lan handia du hezkuntza munduak sexualitateari heltzeko moduari dagokionez. Haurren ikaskideek, berriz, erreazio eredugarriak izan dituzte, helduen logika gainditzen dutela erakutsiaz. "Garazi nesken koadrila batean ibiltzen da, eta ondo hartu dute. Esan diote konturatzen zirela ez zela gainerako mutilen modukoa", baieztatu du Arizak.

Medikuntzaren aurrerapenei esker, pubertaroko aldatetak blokeatzeko aukera ere badago orain. Gerora, nahi izanez gero, hormonak hartzen hasi ahal izateko. Osakidetzaren tratamendua jasotzen lehena izan da Leo.



Garazi ere laster hasiko da, eta beste asko etor daitezke ondoren. Aukera bat dela azpimarratu du Mónica Zamorak, baina badaudela bestelako pentsaerak ere: "Badago jendea ez operatzearen eta gorputza onartzearen aldekoa dena". Berari, ordea, ulergarria iruditzen zaio Leok beste mutil gehienen antza eduki nahi izatea. "Bularrik eta hilekorik gabeko nerabezaroa edukitzea oparia da Leorentzat", adierazi du Zamorak. Tratamendua jasotzearen aldeko bi argudio sendo eman ditu Garazik: "Batetik, nire gorputzarekin gustura sentitu nahi dudalako. Bestetik, ez dudalako etengabe azalpenak ematen egon beharko". Bere identitate sexualaren berri eman duenetik, eta neska arropak janzen eta ilea luzatzen uzten hasi denetik, zama handia kendu du gainetik. Lasai hartu du arnas.

Beste eztabaida bat da mutil edo neska it-

xurak existitzen direla esatea zuzena den, edo kultura eta estereotipo kontua ez ote diren. "Egia da garaiaren eta lekuaren araberaok direla", aitortu du Beatriz Arizak.

"Kanpotik etor daitezkeen erasoiei aurre egiteko tresnak ematen dizkiegu"

**Beatriz Domínguez**

"Jakin-mina, sentsibiltatea eta interes handia topatu ditugu ikastetxetan"

**Beatriz Ariza**

Aitzitik, topiko gehien-gehienak betetzen dituzte, normalean, haur transexualek. Leok eta Zuharrek kolore arrosa, dantzak edo neskei zuzendutako jolasak baztertu izan dituzte. Aldarrikapen kontua dela argitu du Mónica Zamorak. Gizartearen txertatutako topiko horiek betetzen edo neska gisa onartuak izateko. "Orain, aldiz, hip hop-a dantzatzera apuntatu da Leo. Gustatzen zaiolako, eta jada ez duelako ezer frogatu behar". Hospitallean, ordea, tratamendua jasotzeko, maskulinitatea frogatzeko ahaleginak egin beharko dituela nabarmendu du Zamorak: "Bestela, zalantzan jarriko dute oraindik ere".



**Chrysalis elkartearen lana**  
2015eko martxoan sortu zuten Chrysalis Euskal Herria, Adin Txikiako Transexualen Familien Elkarte. EAEko eta Nafarroako familiak biltzen ditu. Zortzi izan ziren hasieran, eta 24 dira urte bete beranduago. Haur transexualitatearen errealitatea bizi duten familien arteko sarea osatzea du helburu, elkarri babesa

eman ahal izateko. "Gure bizipenak, pozak eta negarrak konpartitzen ditugu. Horrek indar handia ematen digu, gure seme-alaben egoerak sortzen dituen zailtasunei aurre egiteko", adierazi du Aingeru Mayor elkarteeko presidentek. Arreta, informazio eta aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen ditu Chrysalis Euskal Herriak. Gainera, haur transexualen eskubideak errespetatuak izan daitezkeen lanean ari da, lido ezberdinetan: "Lan handia egin behar da hezkuntzan eta osasunean, adibidez".

Harremanetarako:  
685 767 790 (Familiei arreta)  
euskadi@chrysalis.org.es



Chrysalis elkartearen gurasoen taldea.

**Psikiatria zerbitzutik ateratzeko aldarrikapena**  
Osakidetzak Gurutzetako Ospitaleko Genero unitatean hartzen ditu tratamendua jaso nahi duten haurrak. Psikiatria zerbitzuaren baitan dago, eta psikiatra batek du tratamendua eman edo ez erabakitzeko giltza. "Guk aldarrikatzen duguna da gure haurrek ez dutela buruko arazorik. Ez daude gaixorik, eta ez dute psikiatzen beharrik", azpimarratu du Aingeru Mayorrek. Transexualitatea gaixotasun baten moduan ez tratatzeko borrokan ari dira Chrysalis elkarteeko gurasoak. "Nazioarteko erakundeek argi utzi dute transexualitatea ez dela patologia bat. Eusko Jaurlaritzak berak ere, hori ukatzen duen lege bat onartu zuen 2012an", gogorazari du Mayorrek: "Lege horretan idatzitakoa aurrera eraman dezaten lanean ari gara orain".

Administrazioetan ere oztopoak topa ditzakete haurrek. Eusko Jaurlaritzak haurren sexua eta aukeratuak izena zehaztuko dituen dokumentu bat sortzeko dekretua onartu du. Dena den, EAEko administrazioetan besterik ez du baliorik izango. "Beste dokumentu ofiziale-tan ere haien sexua ager dadin bo-

rrokatu behar dugu", adierazi du Aingeru Mayorrek. Adibide argigarria eman du: "Nire alaba aireportura joaten baldin bada, nortasun agiria eskatuko diote, eta txartela horretan gizezkoak dela esaten du. Azalpenak ematera behartuko dute, eta hori intimitate eskubidearen urraketa da".

Chrysalis elkartearen beste lan nagusietako bat da haur transexualitatearen errealitatea zabaltzea. Horretarako, hedabideetan presentzia edukitzea oso garrantzitsua dela uste dute, gurasoek aukera horren berri izan dezaten, batez ere. Haurrentzat, erreferente izan daitezkeen telesailetan edo filmetan haur transexualen kasuak azalitzea interesgarria izan daitekeela uste du Mónica Zamorak: "Guzti horrek errealitatea normalizatzen laguntzen du. Gizarteak ulertu behar du amaitu direla zurien eta beltzen garaiak. Grisen gama handia dagoela". *El sexo sentido* dokumentaleko haurrak gertatzen ari zitzaizena ulertzeko lagungarri izan ziren Garazientzat eta Leorentzat. Orain, egoera berdinean egon daitezkeen beste haurrentzat erreferente izan nahi dute haiek.



## Aldaketa esanguratsuak jasan ditu San Migel-Anaka planak

Lakaxita eraisteko asmorik ez du Irungo Udalak Sancheski enpresaren lekualdatzea atzeratu dute, eperik gabe

Beste urrats bat eman du San Migel-Anaka eremuaren urbanizazioak. Hiri Antolaketarako Plan Bereziaren bigarren aldaketaren berri eman du Irungo Udalak, eta alegazioak jasotzeko epean dago orain. Maiatzean edo uztailean plenora eramatea aurreikusten du udal gobernuak, behin-betiko onartzeko. Egindako aldaketek bi helburu nagusi dituzte: kargak murriztea, eta proiektua aurrera eramateko etapak zehaztea. "Modu horretan, horrenbeste atzeratu den plana behingoz martxan jartzea lortuko dugu", argitu du Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak. Besteak beste, Lakaxita ez eraistea eta Sancheski enpresaren lekualdatzea atzeratzea aurreikusten du udal gobernuak.



Milatik gora etxebizitza eraikiko dituzte, hurrengo urteetan, San Migel eta Anaka auzoen arteko eremuan. 100.000m<sup>2</sup>-ko espazioa hartuko dute, guztira, etxebizitzetako eraikinek, Letxunborro, Jaizkibel, Donostia eta Anaka kaleen artean. Hiri Antolaketarako Plan Bereziaren bigarren aldaketaren arabera, etxebizitza libreak 288 izango dira. Babes ofizialekoak, aldiz, 887 (%75). Zortzi urteko epean, 400 etxebizitza inguru alokairu sozialera bideratu nahi lituzke udal gobernuak. "Gogoratu behar da alokairu sozialeko etxebizitzaren eraikuntza konplikatua dela, finantzatzearako orduan topatzen diren zailtasunak direla eta", azpimarratu du Iridoyk.

Etxebizitzetaz gainera, futbol zelaia, beste-lako kirol instalazioak eta merkataritza gunea eraikiko ditu udalak eremuan.

Proiektuaren bolumena ikusita, argi dago luze joko duela. Iridoyk berak aitortu du: "Plan handia da, konplexua, akordio asko behar dituena". Horregatik, hiru etapa edo fase nagusitan aurrera eramateko planteamendua egin dute. Dena den, 2017ra arte, behintzat, ez dira lurra mugitzen hasiko. Aurtengo helburuen berri eman du Xabier Iridoyk: "Alde batetik Eusko Jaurlaritzarekin lan egiten jarraituko dugu, lursailen %25en jabea baita. Aldi berean, lurraren deskontaminaziorako ikerketari ekingo diogu. Ondoren, PAU edo

urbanizaziorako ekintza plana eta partzelazio proiektua martxan jarriko ditugu".

**Eremuan dauden eraikinen etorkizuna** Planaren azken aldaketak, eremuan dauden zenbait eraikin finkatu ditu. Beraz, ez dituzte eraitsi behar izango. 1.343.000 euro bideratu ditu Irungo udalak azken urteetan, eraikinak eraberritzeko. Proiektuak izan duen atzerapenak bizilagunei

eragin dizkien eragozpenak onartu ditu José Antonio Santano alkateak: "Ziurgabetasunean bizi izan dira hamarkadetan zehar. Lasai egon ahal izango dira orain". Lekaenea ikastetxea ere finkatu

"Plan handia eta konplexua da, akordio asko behar dituena"

**Xabier Iridoy, Irungo Udaleko Hirigintza ordezkaria**

du Irungo Udalak. Sancheski enpresa behin-behinean finkatu du, eta haren lekualdatzea atzeratu, jabeek erabakia hartzen duten arte.

Beste eraikin batzuk, aldiz, ordenaziotik kanpo gelditu dira: Santa Barbara, Izartxo-Enea, Agerre Txiki, Etxeberri eta La Casita, gaur egun Lakaxita Gaztetxea hartzen duena. Azkena izan ezik, gainerakoak eraitsi egingo dituzte, errepideak edo oinezkoentzako bideak eraikitzeko. Lakaxitaren lursaila, eraikina barne, 1.300.000 euroren truke erosi du Irungo Udalak. Dena den, ez du eraikina eraisteko asmorik. "Lakaxitako jarduerak aurrera egin ahal izango dute", konfirmatu du Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak.



KINEESIS

www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Aranizateko Jauna kalea, 10 behe IRUN. 943 626 983 - 606 296 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOIA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT





## Lasaitua hartu dute Lakaxitako kideek

Lakaxitako asanbladako kideek eta erabiltzaileek ere kezka bizi izan dituzte San Migel-Anaka planari buruzko berriak. "Izaera autogestionatuko gune bat beti bizi da mehatxupean", onartu du Beñat Muguruzak. Gainera, proiektuari buruzko informazio guztia komunikabideen bidez jaso dutela salatu du. Horrela jakin zuten udalak eraikina erosi zuela, eta Hiri Antolaketa Plan Bereziaren bigarren aldatetaren arabera ordenaziotik kanpo geratzen zela. Egoera horrek ekar zitzakeen ondorioen beldur, otsaileko udalbatzan Lakaxitaren etorkizunari buruzko galdera egiteko baimena eskatu zuten. "Udalbatzan hitz polit asko entzun genituen", adierazi du Muguruzak. "Hamaika urteko ibilbidean lehen aldiz", zehaztu du. Xabier Iridoy Hirigintza ordezkariekin eta Mikel Orgallo arkitekture buruarekin bildu ziren ondoren, martxoaren 17an, egoeraren inguruko xehetasunak biltzeko asmoz. "Luze hitz egin genuen, eta nik uste zalanza guztiak argitu genituela", baieztatu du Iridoyk. Lakaxitako asanbladako kideek ere balorazio positiboa egin

dute. Plazaratu duten oharrean udaleko ordezkariei eskerrak eman dizkiete jasotako harreragatik, eta Lakaxitak hiriarri egiten dion ekarpena aitortzeagatik. "Udalak gure lana onartu eta txalotu du, eta horrek lasaitasuna ematen digu", aipatu du Iridoyk. Udalak eraikina eraisteko asmorik ez duela, eta Lakaxitak orain arte funtzionatu duen moduan aurrera egin dezan begi onez ikusten duela ere jakinarazi du Xabier Iridoyk: "Modu autogestionatuan funtzionatu dute orain arte, eta esperientzia baikorra izan dela uste dut. Zergatik aldatu orain arte ondo funtzionatu duen jarduera?".

Aitzitik, eraikinaren jabetza Irunvi Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoarena da. Hortaz, udalak du han gertatzen denaren gaineko ardura. Horregatik, eraikinak segurtasun neurri jakin batzuk bete beharko dituela aurreratu du Hirigintza ordezka-

riak. "Teknikari bat pasa beharko da ikuskatzera. Pentsatzen dugu etxea nahiko ondo dagoela, urte guzti hauetan mantentze lanak egin dituztelako", azaldu du Iridoyk. Martxoaren 17ko bilerara, eraikina finkatzeko proposamena eraman zuten Lakaxitako asanbladako kideek. Baina Iridoyk argitu du aukera horrek beste egoera batera eramango lukeela: "Bide normatibotik eramango luke. Laka-

**"Udalak gure lana onartu eta txalotu du, eta horrek lasaitasuna ematen digu"**  
**Iridoyk, Lakaxitako asanbladako kidea**

xita eraikina ekipamendu publiko bihurtuko litza-kete, eta arautegi estu bat bete beharko luke". Beñat Muguruzak aurreratu du ez duela uste baldintza horiek betetzeko prest daudenik. Asanbladan eztabaidatuko dituzte aukerak, dena den.

### Ospakizuna, Jaionen

Jasotako azken albiste onak ospatzeko aukera izango dute Lakaxitan era batera edo

bestera parte hartzen duten guztiak. Apirilaren 23an gaztetxearen hamaikagarren urteurrena ospatuko dute, urteroko Jaion festarekin. Kontzertu ibiltaria irtengo da 17:30etan Moskutik, Urdanibia plazatik. Ondoren, festa luzea izango da Lakaxitan. *Lakaxita beriola* leloa hautatu dute aurretan, Lakaxitak bere horretan jarrai dezan nahi dutela aldarrikatzeko. Bide luzea egin du modu autonomo eta autogestionatuan funtzionatzen, eta moldatzen eta eraldatzen ere jakin du. "Gaur egun ez dakigu nola deitu. Gaztetxe hitzak lotsa pixka bat ematen digu jada", onartu du Beñat Muguruzak. Izan ere, gaztetxe klasikoetan ohikoak diren hitzaldiak, eztabaidak, kontzertuak, antzerkiak eta bestelako jarduerak aurreratu du ez duela uste baldintza horiek betetzeko prest daudenik. Asanbladan eztabaidatuko dituzte aukerak, dena den.

Jasotako azken albiste onak ospatzeko aukera izango dute Lakaxitan era batera edo

